

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**6/2016 Foru Araua, apirilaren 13koa, martxoaren 15eko 2/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzekoa, aldatzen duena irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aseguru primen gaineko zerga arautu zuena**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2016ko apirilaren 13an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

6/2016 Foru Araua, apirilaren 13koa, martxoaren 15eko 2/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzekoa, aldatzen duena irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aseguru primen gaineko zerga arautu zuena.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, martxoaren 15eko 2/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aldatzen duena irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aseguru primen gaineko Zerga arautu zuena.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Biltzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Biltzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da 2/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 15ekoa, aldatzen duena irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aseguru primen gaineko Zerga arautu zuena.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 13a

*Lehendakaria*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**